

GURE MENDIA ELKARTEAREN

ARAUDIAK (PROIEKTUA)

1. ARTIKULUA - IZENA

Araudi hauen kideen artean, 1901eko uztailaren 1eko legean eta 1901eko agorrilaren 16ko erabakian oinarritutako elkarte bat sortua da, GURE MENDIA deitzen dena.

2. ARTIKULUA - HELBURUA

Ainhoa, Azkaine, Biriatu, Sara, Senpere, Urruña, Ziburu, Baztan, Bera, Etxalar, Zugarramurdi eta Urdazubiko udalerrien mugaz gaindiko mendiguneak modu iraunkorren kudeatzeko lankidetzaz erraztea, mendiguneetan dauden baliabideen eta aktibitateen kudeaketa orekatua begiratzeko, bidez:

honako hauen

- 1) Sareak sortuz eta esperientziak trukatzuz
- 2) Ekintza partekatuz gauzatzuz
- 3) Materiala erosiz eta bateratuz
- 4) Komunikazioaren bidez

Hauek dira elkartearen esku-hartze eremuak: sute-arriskuen kudeaketa, artzaintza, bioaniztasuna, oihana, erabilera anitzaren kudeaketa, araudia.

Elkarteak ezingo ditu eraman udalerrien eskumenekoak diren proiektuak.

3. ARTIKULUA-EGOITZAETAIRAUPENA

Egoitza soziala Hego Lapurdiko Elkargoaren Etxean finkatua da, Urruñan (64122) - 5/7 Putillenea karrika

Elkartearen iraupena mugagabea da.

4. ARTIKULUA - OSAKETA

Udalerrri hauek dute elkarte osatzen: Ainhoa, Azkaine, Biriatu, Sara, Senpere, Urruña, Ziburu, Baztan, Bera, Etxalar, Zugarramurdi eta Urdazubi.

Kide den egitura bakoitzak bi ordezkari ditu: tituludun bat eta ordezkari bat, udaletxe bakoitzeko udalbatzarrak izendatuta. Ordezkariek hurrengo udal-hauteskundeak arte irauten duen kargu aldia betetzen dute.

Elkarteko kide den udal bakoitzak boz bat du

Elkartearen mugaz gaindiko izaera kontuan hartuz, biltzarrak frantsesez, gaztelaraz edo euskaraz izan daitezke. Haatik, elkartearen biltzar agiriak eta beste kudeaketarako dokumentuak frantsesez gordeko dira edo elebidunez (frantsesez eta euskaraz). Elkartearen bilkurak elkarteko kide den edozein herritan egiten ahalko dira.

5. ARTIKULUA - PARTAIDEAK

Lurraldean hitzartzea errazteko, elkarteak biltzarrak antola ditzake kide ez diren beste pertsona fisiko edo juridiko batzuekin, hausnarketetan parte har dezaten, bozkatzeko eskubiderik gabe.

6. ARTIKULUA - BAZKIDE SARIA

Kide dira urteko bazkide saria ordaintzea hitzeman dutenak. Zenbatekoa biltzar nagusiak finkatzen du urte amaiera bakoitzean.

7. ARTIKULUA - BALIABIDEAK

Honakoak dira elkartearen baliabideak:

1° Kideen bazkide sariak;

2° Esleituak izan dakizkiokeen dirulaguntzak

3° Har ditzakeen maileguak

4° Indarrean diren legeek eta araudiek baimendutako baliabide oro.

8. ARTIKULUA - ESKU HARTZEKO MODUAK

Gure Mendia elkarteak, bere ekintza programa eta aurrekontua bozkatuz, honakoak erabakitzen ahalko ditu:

- Elkarteak berak gauzatutako ekintzak finantzatzea, bere aurrekontu propioaren bidez eta, beharrezkoa bada, kanpoko dirulaguntzak eskatzea
- Elkarteko kideetako batek gauzatutako ekintzetan ekonomikoki parte hartzea, kanpoko bestelako dirulaguntzez gain
- Kide diren udalerrietako mugaz gaindiko lurraldeko eragile publiko edo pribatuek gauzatutako ekintzetan diruz parte hartzea, beharrezkoak diren kanpoko bestelako dirulaguntzez gain

9. ARTIKULUA - OHIKO BILTZAR NAGUSIA

Ohiko biltzar nagusiak bazkide saria ordaindu duten elkartekide guziak biltzen ditu, izendatutako ordezkariak ordezkatuta.

Urtean behin biltzen da gutxienez eta behar bezainbeste.

Lehendakariak ditu elkartekideak biltzera deitzen. Gai zerrenda dei gutunean jakinarazia da.

Lehendakariak edo lehendakariordeak du biltzarra zuzentzen, bulegokideek lagunduta, eta elkartearen egoera morala edo jarduera azaltzen.

Diruzainak bere kudeaketaren berri ematen du eta urteko kontuak aurkezten dizkio biltzarrari (balantzea, emaitza kontuak eta eranskinak).

Erabakiak bertaratutako edo ordezkatutako kideen bozen gehiengoz hartuak dira. Berdinketa kasuan, kasuan, lehendakariaren boza da nagusi.

Udalerrri bakoitzeko ordezkariak boto (edo boz)
bat izanen du, eta haren izenean bi aholorde baino ezin izanen ditu izan

Behar bezala erabakitzeko, bertaratutako edo ordezkatutako kideen bi herenak osatu behar du biltzar nagusia.

Biltzar nagusiak bulegokideak (edo batzordekideak) izendatzen edo berritzen ditu, lehendakaria hautatzen du eta barne araudia bozkatzen.

Biltzar nagusiak du urteko bazkide sariaren zenbatekoa finkatzen.

10. ARTIKULUA - EZOHIKO BILTZAR NAGUSIA

Beharrez, lehendakariak edo elkarteko kide diren udalen laurdenak eskatuta, lehendakariak ezohiko biltzar nagusi bat dei dezake, araudi hauetan zehaztutako moduei jarraikiz eta soilik araudiak aldatzeko (udalerrri berri batzuei zabaltzeko adibidez) edo desegiteko.

Biltzera deitzeko moduak ohiko biltzar nagusia deitzeko berdina dira.

Erabakiak bertaratutako edo ordezkatutako kideen bi herenen gehiengoz hartuak dira.

11. ARTIKULUA – BULEGOA (EDO BATZORDEA)

Sei kidez osatutako bulegoak (edo batzordeak) du elkartea zuzentzen, horietako hiru Iparraldeko udalerrietakoak eta beste hiru Nafarroako udalerrietakoak, oreka zainduz karguen banaketan.

Bulegoa (edo batzordea) honela osatua da:

- Lehendakari bat
- Lehendakariorde bat
- Diruzain bat
- Diruzainorde bat
- Idazkari bat
- Idazkariorde bat

Bulegoa (edo batzordea) Frantziako edo Nafarroako udal-hauteskunde bakoitzaren ondotik berritua da. Kideak berriz aurkez daitezke.

12. ARTIKULUA - LEHENDAKARIA

Lehendakariak biltzar nagusiaren erabakiak betearazten ditu eta ordezkatzeko duen elkartearen ohiko funtzionamendua segurtatzen du. Lehendakariordeak ordezkatzeko.

Lehendakariak ditu gastuak kitatzen, baina biltzar nagusiaren baimena behar du 1.000 € baino gehiagoko gastu oro kitatzeko.

13. ARTIKULUA - BARNE ARAUDIA

Bulegoak barne araudi bat finka dezake, biltzar nagusiak onartu beharko duena.

Menturazko barne araudiaren helburua da araudi hauek aurreikusi ez lituzketen gainerako puntuak finkatzea, besteak beste elkartearen barne administrazioari dagozkionak.

14. ARTIKULUA - DESEGITEA ETA KIDETZA KENTZEA

10. artikuluan finkatutako moduen arabera, elkartearen desegitea erabakitzen bada, kitatzaile bat edo batzuk izendatuak dira eta, aktibo garbia, halakorik baldin bada, irabazteko xederik gabeko erakunde bati esleitua zaio (edo xede bereko elkarte bati), desegiteari buruz erabakitzen duen ezohiko biltzar nagusiaren ebazpenei jarraikiz. Aktiboa ezin zaio elkartekide bati esleitu, hein batean ere, salbu ekarpen bat itzultzeko gisan.

Kidetza kentzen da honako kasuetan:

a) Udal batek elkartea uzteko aukera izanen du, udalbatzak hala erabakiko balu

B) Administrazio kontseiluak kidetza kentzea jakinarazten duelarik bazkide saria ez ordainduagatik edo arrazoi larri batengatik, kidea bulegoaren aitzinean edo idatziz azalpenak ematera gomitatua izan ondotik (gutun artamendatu bidez).

Urruñan egina,

Bi ordezkariaren izenpean gutxienez (deitura, izena eta kargua), elkartea deklaratzeko urratserako beharrezkoak direlarik.